

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko urriaren 27a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Lurraren Eguna ospatuko dute igandean Altzateko karrikan, hamalaugarrengoz
Javier eta Jose Luis tunoak • « 'Clavelitos' jotzeari utzi nahi diogu, baina jendeak ez digu uzten »



• MIKEL SAIZ

Harresia hautsi dutenak

Azken aldi geroz eta etorkin gehiago ikusten dira gure hirietako karrikan, soroetan, eraikuntza lanetan, tabernetan. Nafarroan 10.000 bat etorkin daudela uste da, eta horietako 3.000 lagun ez daude legezko egoeran. Zabaldi arrazakeria, inmigrazioa eta kulturartekotasunari buruzko elkartasun astea burutzen ari da «Hautsi harresia» izenburupean. NAFARKARIAK Afrikatik etorritako hiru lagunekin hitz egin du. Kongoko Leopoldinek, Aljeriako Mohamedek eta Senegalgo Rogeliak euren bizitza esperientziaz hitz egin digute.




Lesaka ●

Trikitilarien

Omenez

Nafarroako III. Trikitilari Eguna ospatuko dute igandean Lesakan.

Urte asko dira jada Nafarroako makina bat bazterretan trikitixa jotzeko zaletasuna zabaltzen hasi zela. Horren erakusgarri dugu aurten ospatuko den hirugarrengo Nafarroako Trikitilari Eguna.



Nafarroako trikitilari gazteak Lesakan elkartuko dira, igandean. ● EGUNKARIA

TRIKITIXARI INDAR EMATEKO txapelketak antolatu ziren hasieran. Horrela, lautan antolatu da Nafarroako Trikitixa Txapelketa. Baina txapelketaren bidea baztertu egin zen, eta, duela bi urte, Barañainen antolatu zuten lehenbizikoz Nafarroako Trikitilari Eguna. Iaz Sakanan egin zuten trikitilarien topagunea. Eta aurten, Lesakan.

dantzatzeko... aukera ematen du. Aurtengo trikitilari eguna Lesakan antolatzearen arrazoia ez da kasualitatea. Izan ere, Bortzirietan anitz dira trikitixa eta panderoa jotzen eta ikasten ari direnak. Hortxe ditugu errandakoaren adibide, Lesaka, Etxalar, Arantza eta Berako trikitixa eskolak, ehun ikasletik goiti biltzen dituztenak.

Trikitilari Eguna Nafarroako trikitixa eskolak elkartzen dituen eguna da, eta elkar ezagutzeko, ongi pasatzeko, ikasleek urtearen buruan ikasrikoa karrikartzeko, bazterrak alaitzeko,

Egun osoko besta Igandean, jaia hasteko, 10:00etan, eskola guzietan harrerera ofiziala egingen zaie herriko plazan. Ondoren hama-

rretakoa hartuko dute. Ordu-bete berantago Bortzirietako bost herrietan kalejirak egingen dituzte, gero, 14:00etan, Lesakako plazan denak berriz elkartzeko. Frontoian egingen den herri bazkariaren ondo-

ren, 16:30ean, bertso saioa egingen da; 17:00etan, eskola bakoitzaren saioa (bina kanta); eta 19:30ean, Etzakit taldearen saioa.

→ Asier Azpilikueta

Tafalla ● Abesbatzen erakustaldia

IGANDETIK ASTEAZKENERA Nazioarteko Abesbatzen VI. Erakustaldia egingen dute Tafallan. Denera lau kontzertu izanen dira. Igandean Txekiako Carmina abesbatzak kantatuko du. 250 kontzertutik goiti eman ditu eta 40 haurrek osatzen dute.

Asteleheneko kontzertua Norvegiako Baerum Vokalensemble abesbatzak emanen du. Oeystein Fevang zuzendari ospetsuak 18 eta 30 urte bitarteko 22 emakume gidatzen ditu.

Asteartean Kubako Vocal Leo ariko da. Kantua, aktuzioa eta dantza uztartzen dutehauek.

Azkenik, asteazkenean, Danimarkako Lille Muko abesbatzak kantatuko du, 30 unibertsitariok osatua.

Kontzertu guztiak 20:00etan izanen dira, San Pedro elizan.

Lakuntza ●

Herri lasterketa igandean

ZABALARTE KLUBAK ANTOLATUTA, heldu den igandean IV. Herri Lasterketa egingen dute Lakuntzan. Lasterketako zirkuitua urbanoa da; udaletxe parean hasi eta bukatuko da. Tikienak 10:30ean hasiko dira lasterketan, eta helduenak, 12:30ean. Helduenek (junior, senior eta beteranoak) hamar kilometroko ibilbidea osatuko dute. Maila guzietan emanen dira sariak eta lasterketa bukatzen duten guzientako oparia izanen da. Horretaz landara, lasterketako errekorra (31 m. 50sg.) gaingiditzen duenak 100.000 pezetako sari berezia eramanen du. Izena lasterketa hasi baino ordubete lehenago ematen ahal da, irteeran.

Iruñea ●

Euskarazko sormen tailerrak

HELDU DEN ASTELEHENEAN hasiko da Iruñeko Udaleko euskarazko sormen tailerretako 11. edizioa. Aurten lehenbizikoz enpresa pribatu batek kudeatuko dituen arren, ikastaroek ia zokoen antza handia izanen dute. Hona-koak dira 14 urtetik goitiko

euskaldunei eskaintzen zaizkien tailerrak: argazkigintza, pintura, zeramika, txalaparta, kantak, antzerki teknikak, tapizgintza, jostungintza, eskal dantzak, dantza latinoak, aerobic, yoga, mantenimendu gimnastika, irrati tailerra, Internet eta sukaldaritza.

Sormen tailerren programak euskararen erabilera bultzatzea du helburu. Iruñeko euskaldunek, anitzetan, solaskide euskalduna ote den ez dakite. Jarduera hauetan denak euskaldunak izanen dira eta, hortaz, harremanak euskaraz egiteko parada izanen dute.

Sormen tailerrek heldu den urteko maiatza arte iraunen dute eta 10.000 eta 19.000 pezeta bitarteko prezioa dute. Tailerretan izena emateko epea gaur bukatuko da. Iruñeko Gazteriaren Etxean egin behar da, 18:00etatik 21:00etara.

muga enea

MIKEL REPARAZ



Maizegi sufritzen ditugu metaforak ikus-entzule eta irakurle gaixok. Maizegi, pertsonaje publikoen ahotatik. Maiz, diskurtso hutsalak sakonera birtualez beziatzeko helburuaz. Sarritan, herri xehearen garun kolektiboari herdoila garbitzeko kariaz. Beti, iritzi publikoaren artzainen zerbitzuan. Kazetari orojakin belazurien izerditarako. Esaldi horrekin zer esan nahi izan duen presidente jaun txit gorenak? Alegia, halako esan nahi izan ote duen diputatuak? Ala kontrakoa? Ala ez eta hutsa ere ez? Neuronak alferrik xaxatu eta azkenean alproja horrek deus esan ez duela konpreniturik, esan nahi izan duenaren giltzarria harrapatu dutela-eta itxurak egin eta zozo aur-

Metaforagileak

pegikeraz norberaren bakardadean kontent gelditzeko. Baina gauza da hiztegi eta entziklopedia guzien arabera metafora erretorikaren baliabidea dela, eta zoritxarrez oso erretore eskasak eman dizkigula gure Herri honek. Zoritxarrez.

Metaphora hitz grekotik, metafora: urpeko soviatar baten sabelean ito diren hildakoen oihuak ozeano ilunak irentsi dituela esatea, eta era berean nafarrongandik Lizarra Gernika baino hurbilago dagoela baieztatzea, Garazi Ipar Euskal Herrian dagoen moduan; eta Garazitik Gasteiza kilometro franko direla kontuan harturik, Estellako trenaren Altsasu parean edo Uharte-Arakilen ausaz trenbidetik atera eta txiki-

txiki eginik amaitu duela oihukatzea bezala. Pantalon motxetan edo bizkorratxiko edo biluzik eta elkarri aurpegira begiratu lan egin behar dela gomendatzea legez. Erran nahi baita, gari alor zabaletan arto bikorrik erein nahi ez dutenen hitz gezurtiak aditu baino, hobe dela metafora on baten altzoan udako iguzkiaren errukitan ezkutatzeko, sagarrondo baten gerizpean kuluska egin bitartean, eta trenak eta abioiak pasatzen uztea, sagar batek buru gainean jo eta gerizpearen teoria asmatu arte. Edo kilometroak eta distantziak eta ozeano ilunetako urpeko soviatar aitazkitarako harturik, bi mila karakter idaztea, metaforak metafora, zutabe-metafora hutsal bat erditzeko. Bada, horixe.

Bera • Egun bat lurrari

Lurraren Egunaren hamalagarren aldia egingen da igandean Altzaten

Orain hamalau urte hasitako besta izanagatik ere, arrakasta izugarria du Lurraren Egunak, Beran ez ezik, baita eskualdeko gainerako herrietan ere. Igandeko egitarauak orain arteko ildotik jarraituko du.



Beran ez ezik, Lurraren Egunak arrakasta izugarri handia erdietsi du eskualdeko herrietan. Igandean, ● TIPI-TTAPA

ORAIN HAMALAU URTE GURE Txokoa Elkartek Lurraren Eguna sortu zuenean nekez pentsa zitekeen hain arrakastatsu gertatuko zela. Urteotan izugarri handitu da besta egun hau, eta herriko egutegian egunik seinalatu netakoa bihurtu da. Antolatzailleak besta hau antolatzea bultzatu zituen arrazoiak bat baino gehiago izan ziren. Beran azoka bereziek ez dute inoiz garrantzi askorik izan, Bortzirietako Feriak egiteko eskubidea Lesakak baitzuen. Kontua, hala ere, ez zen feria egun bat bere horretan antolatzea. Ordurako urritzen hasiak ziren artisauei leiho bat irekitzea eta euskal giroko besta egun bat antolatzea izan ziren bestaren ardatzak.

Nekazari herria izan da historikoki Bera, nahiz eta azken hamarkadetan indus-

triaren ezartzearekin bigarren mailan gelditu den lehendabiziko sektorea. Hala ere, ingurunearekin duen lotura kontuan izanik, herrian eta Bortzirietako baserrietan ekoizten zena ezagutzera ematea beharrezko zela sumatu zen. Hortik, urtero Bortzirietako baserriarren produktuekin erakusketa egitea, eta gazta eta sagardo lehiaketak antolatzea. Sagardoarena azken urteotako berrikuntza izan da, produktu horiek erakusteko berte saio bat.

Euskal Herri osoko egun bakarreko artisautea azokarik garrantzitsuena bihurtu da Lurraren Eguna, eta ho-

rren karietara milaka pertsona biltzen da urtero Berako karriketan. Artisauteak erakustez gain, horiek nola egiten diren jendaurrean azaltzea izan zen erronka nagusietakoa. Igandean, nahiz eta guztiak lanean ez aritu, ehun postu paratuko dira karrikan, goiz eta arratsaldean.

Egitarau osatua

Bertara joaten denak, artisauteak postuak eta barazki erakusketez gain, bertelako ekintza osagarriak izanen ditu. Hala, goizeko 10:30ean Lizuniagako Igoera txirrundulari lasterketa hasiko da, eta tenore horretan ireki-

ko dira erakusketa postuak. Trikitilari eta dantzariak alaituko dute goiz parte.

Arratsaldean, berriz, taloak, gaztainak eta sagardoa dastatu ahal izanen da, eta Zizkuitz txaranga ibiliko da inguru guztian alaitasuna paratzen. Gazta lehiaketaren sari banaketa, enkantea eta bertsolarien emanaldia etorriko dira gero, musikari leku egin aitzin: musika eskolako perkusio taldea ariko da lehenik, eta Irats taldearen dantzaldia eta Arantzako Ziolek taldearen kantaldia etorriko dira ondotik.

→ Jon Abril

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Kontsumoaren gorabeherak

Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak Mikel Bezunarteari elkarrizketa egin dio **Ttipi-ttapak** bere azken zenbakian. Ondokoak dira Bezunarteari aldizkarian errandakoak: «Gehien bat kontsumitzaileen kezka argitzen ditugu. Normalean, zenbait gertatu ondoren etortzen da jendea. Baina gero eta informazio gehiago ematen sugu aitzinetik, jendea piskanaka kontzientziazten ari delako edozer gauza erosi eta kontratatu baino lehen informazioa jaso behar duela. Alde horretatik arras kontent gaude. Inguruko komu-

nikabideetan ere kolaborazioak egiten ditugu, ikastaroak, solasaldiak...».

«Baztan eta Leitzan gaude eta aurtengoa egin dugu proposamena Bidasoaldera hurbiltzeko. Bortzirietako Mankomunitateak nahiko aitzindua zuen proiektua Etxalarrera eramateko eta baiezkoa eman zigun baina hondarrean, aurrekontu handi xamarra zela eta, ezetz erran digute eta heldu den urtean ikusiko dutela».


«Etxebizitzaren inguruko aferak dira gehien galdetzen direnak, gero komertzioa, etxez-etekeko zerbitzuak,

aseguruak... Baina erosi edo kontratatzen den edozer gauza kontsumoa da, beraz, arlo guztietan bada kexa eta zalantzarik. Kontsumoa azken urteotan aunitz aldatu dela uste dut. Jendeak ez daki ongi kontsumitzen, geroz eta gauza gehiago kontsumitzen dugulako. Jendeak informazioa behar du eta horretaz ohartzen ari da. Baztan pisua erosi behar duten gazteak guregana hurbiltzen ikustea polita da niretako. Kontsumoaren afera arras zabala da, eta lan handia gelditzen zaigu».

Kua-kuakadak

Pegenaute eta horiek Takonerako ahateen antzera nahi gaituzte: «Kua-kua-kua, hemen nago ni, uretan marraskiloen bila, emaidazue artoa, kua-kua, txortan egin nahi dut, kua-kua, hau bizitza lasaia, kua», eta kitto. Ez al ditugu, bada, gure oinarrizko beharrak aserik? Ez al dugu, bada, jaten eta edaten eta larrua jotzen? Orduan, zertara dator «Politika» egin nahi izate hori? Zergatik nahasten dugu gure kua-kua ulertezin hori «Politikarekin»? Ez al zaigu aski eremu kuakakor bat edukitzea? Zertarako orduan «politikarekin» nahastu! Gero etorriko dira hor goian ahatei begira dauden zangobiko horien teoriakoak eta hauek «Hiritarren Eskubideez» mintzatuko dira ozenki eta kuakakadek ez dutela inongo eskubiderik, eskubideak gizasemeenak direla, kasu, eta ez «Herri» edo Kuakua ulertezinenak. Baina, otoi, gizasemeen eskubideez ari dira eta ez, inolaz ere ez!, ahateen eskubideez! Eta ahateari otu egiten baldin bazaio: «Bale, ados, nire kuakadek ez dute eskubiderik, ez eta Ahateen Herri Kimerikoak ere, hitz egin dezagun beraz nire eskubideez», orduan hasiko dira esaka besteak, zangobikoak, benetako hiritar horiek, benetako gizasemeak, eskubidedunak, hasi garela!, berriz ere kuakakadak eta «Politika» nahasten ari garela. Beraz, argi dago. Ez Ahateen Herriak, ez Ahateen Kuakuakadak, ez Ahateek ere ez dute inongo eskubiderik. «Politikaz» hitz egiteko zangobikoak bihurtu behar, gaztelania gardenean mintzatu eta kuakuakadak ahaztu. Eta hau guztia horrela dela frogatzeko Pegenauteren hitzekin bukatu nahi nuke. Kua-kua ikastera animatuko al zen galdetu zioten eta kuakuaeraz irakurri diot erantzuna EGUNKARIAN; baina, hala eta guztiz ere, «itzulpena» egin behar izan dut, zentzua ongi harrapa dezazuen. Horrela zioen benetako gizaseme, zangobikoak: «Ni zintzoa naiz, eta ez naiz etorriko bi memelokeria esan eta ondo gelditzera. Nik gaztelaniaz hitz egin dut beti. Ez dut kua-kua hori ikasi eta ez dut ikasiko, ez baitut inolako beharrik. Gainera, nirekin hitz egitera etortzen diren ahate guztiak, zorionez, primeran dakite gaztelaniaz». Ikusten duzue, gu bezalako ahateek gaztelaniaz hitz egiterakoan benetako gizasemeak ematen dugula esatea besterik ez zaitzaion falta ●

Hiru afrikarrekin solasean



Iruñeko Udalaren zentsura gainditu eta gero, arrazakeria, inmigrazio eta kulturartekotasunari buruzko elkartasun astea burutzen ari da Zabaldi «Hautsi harresia» izenburupean. Nafarroan 10.000 bat etorkinek harresia hautsi dutela uste da, eta horietatik 3.000 lagunek ezin izan zuten euren egoera legeztatu uztailearen 31an akitu zen aparteko prozesuan. Ezbairik gabe, etxebizitza da Afrikatik datozkigun etorkinen arazo nagusia. Horixe kontatu diote NAFARKARIARI Kongoko Leopoldinek, Aljeriako Mohamedek eta Senegalgo Rogeliak. Lehen harresi bat haustea erdietsi zuten eta honeraino ailegatu ziren. Baina beste harresi bat paratu diete. Bertako jendeak ez die afrikarrei pisuak alokatu nahi. Hiru solaskideen kontaketa arabera, harresi hori hausteko maila indartsua izan beharko du, eta errespetua zein justizia izan beharko du oinarri.

→ Asier Azpilikueta

Leopoldine

KONGOKOA

«Bederatzi hilabete daramatzat alokatzeko pisu bila»

LEOPOLDINE DUELA URTE BAT ETA BOST HILABETE ETORRI zen hona. Senarrak bost urte daramatza hemen. Semea eta alaba Kongon dituzte oraindik. Leopoldinek 37 urte ditu eta bere benetako izena ez da Leopoldine, baina halaxe paratzea nahi du, bere arazoak ez handiagotzeko.


Leopoldine etsita dago, bederatzi hilabete baitaramatza alokatzeko pisu bila. «Hemengo egoera oso-oso gaizki dago», erran du Leopoldinek, bere gaztelania kaskarrean. «Lana bai, baina lo egiteko pisurik ez. Irabazten dudana guzua pentsioa eta janaria ordaintzeko da, eta ez zait dirurik gelditzen Kongora bidaltzeko. Horrela ezin ditut nire familia eta herria lagundu». Gainera, pentsioan janariak prestatzeko aukerarik ez dutenez, garestiago ateratzen zaie janaria.

Kongon enpresa garrantzitsu bateko zuzendaritza idazkaria zen Leopoldine. Baina gerra dela eta, Kongoko egoera ekonomikoak txarrera egin zuen guziz. Prezioek gora egin zuten nabarmen, baina lan sariek bere horretan jarraitu zuten. Orain senarrak eraikuntzan egiten du lan, eta Leopoldinek, Iruñeko lantegi batean. Hilabeteren batean zerbait aurrezteko lortzen badute, 30.000 pezeta edo, hara bidaltzen dute, baina, hala ere, ez da nahikoa, hanga biziak kostua hemengoa baino altuagoa delako.

Etsipenean pisu bila

Leopoldinek Iruñeko etxe agentzia guzietan izan da alokatzeko pisu bila. «Ongi tratatzen zaituzte, oso sinpatikoak dira», dio. «Guzietan utzi dut telefonoa, baina pisuren bat ikustera joatean, afrikarra zarela ikusi eta ez dizute alokatu nahi. Eta agentzia batzuek, zuzenean, pisurik ez dutela erraten dute, badakitela jendeak ez duela afrikarrik nahi bere pisuan».

Lana aurkitzeko ez zuen arazo handirik izan Leopoldinek. Hemen lanik ez balego, ez lirake etorkinak etorriko. Baina etorkinei etxebizitzak alokatuko dizkien jendea falta da. «Hemen arrazakeria handia dago», ondorioztatu du Leopoldinek. Bera bezala, bere herrikide gehienak desliluraturik daude. Afrikarrekiko diskriminazio handia dagoela uste dute. «Paperak ongi ditugu. Pisuak falta zaigu eta ez dakigu zergatik», adierazi du. Erantzunak azalaren kolorean izan behar duela uste du Leopoldinek.



MIKEL SAIZ

Iruñeko unibertsitateetara datorren ikasleak gehienez ere hiru egun behar ditu pisua aurkitzeko. «Baina nik bederatzi hilabete eman ditut!», oihu egin du berriz Leopoldinek. «Zergatik, baina? Dirua badaukagu!», Leopoldinek ulertzen du jendeak ez duela dozena bat etorkinen zarata jasan nahi, baina, berak dioenez, hiru besterik ez lirake sartuko pisuan, bera, senarra eta horren anaia bat.

«Espainia gustuko dut», dio Espainia eta Euskal Herria ezberdintzen ez dituen Leopoldinek. «Hemen gelditu nahi dugu bizitzen, eta seme-alabak hona ekarri. Baina horretarako etxebizitza behar dugu. Hori da gure premiarik handiena».

Rogelia Diarne

SENEGALGOA

«Aukera gehien eskaintzen diguten tokietara joaten gara»

IRUÑEKO ERMITAGAÑA AUZOAN SOLASTEGI TELEFONIKOA du 43 urteko Rogeliak. Bertara makina bat etorkin bilitzen da egunero, bere jaioterrietakoekin hitz egiteko edota dirua bidaltzeko. Rogeliaren benetako izena ez da Rogelia. Kontua da Madrilen (hantxe zazpi urtez ibili zen, neskame) bere izena ongi ahoskatzea zaila egiten zizaiela eta horregatik eman zioten Rogelia izena.

«Senegalen arraindegi lantegi batean lan egiten nuen». Baina, halako batean, lan saria jaitsi eta ez zuen bizitzeko nahikorik eman. Rogelia bakarrik etorri, eta hemen ezkondu zen, beste etorkin batekin. Hiru urteko alaba dute, Fatima edo Mimi, arras ezaguna eta maitatua auzoan. Fatimak orduak eta orduak ematen zituen lehen amaren solastegian. Orain eskolara joaten da.

Pisu bila, etorkin guzien gisara


Rogeliak urtebete darama Iruñean. Edo hobeki errateko, urtebete darama Iruñean lanean. Izan ere, pisua lurtuzunen du eta handik etorri behar du egunero. Rogelia, nola ez, Iruñean alokatzeko pisu bila dabil. Hiru hilabete daramatza bilaketan. «Etorkin guziek dugu arazo bera», dio atsekabez. «Ez dizkigute pisuak alokatzen. Ez dituzte afrikarrik nahi. Behin egunkari bateko iragarkari batean irakurri nuen ez zutela etorki-

nik nahi. Madrilen nik ez dut horrelakorik ikusi. Nahi nuen lekuan bizi nintzen. Mostoles, Alcorcón edo Madrilen. Hemen agentzia mordo bisitatu dut, auzoko bizilagunekin salatu naiz, baina ezinezkoa da».

Etorkinek, batez ere, nekazaritzan, etxe garbiketara eta eraikuntzan egiten dute lan. «Ni etorri nintzenean, 1992an, ez zegoen horrenbeste etorkin. Orain ez dago guzientzako lanik», Rogeliak, behintzat, lana badu. Solastegian gustura dago goizeko hamaiketarik gaueko hamaiketara lan eginez. Bazkaltzeko, noski, bi ordu hartzen ditu.

Alde batetik bestera

Eta Iruñean gustura dago Rogelia; baina, laster pisurik aurkitzen ez badu, Burgosera joanen da, hantxe solastegi berria irekiko baitute bi asteren buruan. «Ibiltariak gara, ibiltari paperak ditugu», adierazi du.



MIKEL SAIZ

Rogeliaren senarrak eskulanak saltzen ditu ferietan. «Aukera gehien eskaintzen digun tokira joaten gara. Madrilen lana aurkitzeko zaila egin zenean hona etorri nintzen. Eta Iruñea gustatu zait. Baina etxebizitzaren arazoak gogaitu nau».

Neguan, bidaiatzeko eskaintza ona izatekotan, Senegalera joanen da. Izan ere, hemengo hotza handiegia dela uste du. Oporraldi horietatik itzuliko da, baina gerora ere ez daki hemen bizitzeko geldituko ote den. «Gauzak ongi ateratzen bazaizkit, geldituko naiz, bestela banao beste nonbaitera», bukatu du.

Mohamed Talbi

ALJERIAKOA

«Gizarte justizia eta errespetua dira bizikidetzaren funtsa»

MOHAMEDI EZ ZAIKO GUSTATZEN PENTSATZEN DUENA EZKUTATzea. Aljerian sortu zen, duela 37 urte, eta, krisi politikoa dela medio, duela bederatzi etorri zen penintsulara. Ezkongabe dago, akaso besteet denbora gehiegi eskaini dielako. Etorkinentzako atentzio programak garatzen dituen Anafe elkarterako egiten du lan Mohamedek, Iruñean. Lehenago nekazaritzan ibilia zen, baita frantses eta ingeles klaseak ematen ere.

Argi eta garbi dio Mohamedek inoiz ez dela diskriminaturik sentitu. Apika, oso zuria du azala. Baina, erran bezala, etorkinekin egiten du lan, eta horiek anitzetan kontatu dizkiote bazterketa kasuak. Mohamedek etxebizitza propioa du, baina badaki pisua alokatzea «paradisia» dela etorkinendako. «Etxebizitzarena da etorkinen arazo nagusia», erran du. «Anitzetan erran didate zenbait egunkari iragarkitan atzerritarrik ez dutela nahi jartzen duela».

Hedabideen propaganda kaltegarria


Mohamed hona etorri zitzaigun inmigrazioa oraindik tikiatzen zuten gurean. «Oraindik ez zen kontuan hartzen», dio. «Baina aurten gizartean aldaketa izugarria nabaritu da inmigrazioarekiko. Bolada handi batean milaka lagun sartu ziren eta jendea beldurturik dago.

Normala da. Gainera, hedabideen propaganda dago».

Mohameden aburuz, hegoaldeko etorkinak Ameriketakoak edo ekialdekoak baino beldur handiagoa sortaraztea lortu dute hedabide handiek. «Musulmanak terroristak direla, fundamentalistak, estremistak... Halaxe erakusten dizkigute. Informazioa monopolizatu eta nahi dutena zabaltzen dute. Eta komunitate musulmana jazarturik dago, kontrolaturik. Izan ere, kapitalismoak beldur dio gizarte justizia bultzatzen duen ideologia bati».

Errespetua eta justizia

Eta Mohamedendako, gizarte justizia ezartzen denean edozein pertsonarekin bizi daiteke. «Justizia badago, ez dago gatazarrik», dio. «Errespetatzen baldin bada, ez dago arazorik. Euskal herritarrek, espainiarrek, musulmanak, kristauak... besteak errespetatu besterik ez du egin behar. Elkarrekin bizi gaitezke, familia batean».



MIKEL SAIZ

bezala. Bost edo sei kide izan ditzake familiak, eta baikoitzak bere ideologia izanen du. Baina horrek ez du erran nahi sende izateari uzten diotenik edota elkarrekin ezin bizi daitezkeenik. Errespetua badago, lasai bizi daitezke».

Baina errespetu horrek ez du zertan kultura propioa baztertu. «Errespetuak ez nau nortasuna ahanztera behartzen», gaineratu du Mohamedek. «Askok, ordea, integrazioa zure buruaz ahanztea dela uste dute. Eta ez dira konturatzen etorkinek eramaten dutena baino gehiago ekarri izan dutela beti: izateko bestelako moduak, beste kultura batzuk, dibertsitatea...».

Ebaristo Bustintza Kirikiño zenaren abarrak

Ahitzten ari zaigun mende honen hasieran euskal literaturak izan duen idazlerik emankorrenetarikoa zein irakurrienetarikoa izan zen Ebaristo Bustintza; *Euzkadi* egunkari jeltzalean, «Euzkel atala» sinatzen zuen Kirikiño.



Ebaristo Bustintza Lasuen Mañariko Etxanon jaio zen, 1866ko urriaren 26an, eta haurtzaroa herri bereko Zumelaga izeneko etxean eman zuen. Gaztetxo zela, 1878an, Buztintzatarrak Albazeteko Almansara egin zuten, aitaren ogibideak eramanda. Hantxe bukatuko zituen Ebaristok batxilerreko ikasketak, bikain amaitu ere, segituan Madrileko Unibertsitate Zentralera joateko. Madrilén Marin abade frantsesaren ostatuan bizi izan zen, biziki-deen artean Miguel Primo de Rivera diktadoregaia bera zegoela. Bideetako Ingeniaritzan hasi bazen ere, azkenean Fisika-Matematiketako lizentziatura ikasi zuen, 1891rako lortu zuena. Orduan Guadalajara aldeko Sigüenzara jo zuen, hango apezpikutegiko eskolan matematika irakasle jarduteko. Euskal Herrira 1899ra arte ez zen hartzara itzuliko.

Bustintzaren Bilboratzearekin euskal literaturak garrantzizko idazle bat erdietsi zuen. Lehenbiziko idazkiak, Mañari ezizenaz, Azkueren *Euskaltzale* aldizkarian agertu zituen, hamairu osotara. Aldizkari hori 1899an desagertu zenean, Azkuek *Ibaizabal* argitalpena sortu zuen, eta Bustintza bera zuzendarikide aukeratu. Bi aldizkari horietan agerturiko lan gehientsuenak umorezko ipuinak ziren, kontakizun laburrak eta nekazari munduko berriak edota aholkuak.

Azkue bere hiztegiaren argitaratze lanak zaintzeko Parisa 1903an joan zenean, Bilboko Ikastegian ematen zituen euskarazko ikastaldiak beste norbaiten esku utzi behar izan zituen eta Bizkaiko Diputazioari zuzendu gutun batean bere ordezkoa Bustintza izateko eskatu zuen. Bustintzak orduan hartu zuen lana, alta, luzarozan mantendu zuen, lehenbizi Azkueren partez, gero Azkuerekin batera, eta azkenean, berriz ere bakarrik, 1928ra arte. Euskarazko eskolen emateak diru gutxi ekartzen ziolako edo, areago 1909ko irailaren 25ean iloba

euskaraz, berriz, «Euzkel atala». *Euzkadin* 15 bat urte eman zuen, harik eta osasunak beharturik egunkaria utzi zuen arte Orixek ordezkatuta. Zumelagako baratzean zegoela, 1928ko abenduaren 26an, hormaren bestaldera begiratzeko harri baten gainean igo zen; halako batean harria kullunkatu zitzaion, labandu eta erori egin zen, besoa hautsi zitzaiolarik. Orduz geroz, Bustintzaren osasuna geroago eta trenputxartuagoa, egun gutxi igarota, 1929ko urtarrilaren 31n zendu zen, hemiplegia eraso baten eraginez.

Kirikiñok bizi zela liburu bakarra eman zuen argitara, 21 ipuin biltzen zituen *Abarrak* alegia (1918). Hil ondoren *Bigarrego abarrak* agertu ziren (1930), aurretik *Euzkadin* ateratako 46 ipuinekin. Bustintzaren lan zabala jasotzeko bi saio horiek segida luzea izan dute, guztietan berrargitarapenak: *Abarrak, ipuiak eta kondairak* (1956), *Euskaltzaindiak gipuzkeraz eta bizkaieraz karrikaratu* bost ipuin; *Abarrak* (1966), Santi Onaindiak apaillatu bi *abarren* eta beste testu zenbaiten bildumarik osotuena; *Bigarrego abarrak* (1980), hori ere Santi Onaindiak apaillatua; *Abarrak* (1986), Klasikoak sailean Itziar Lakak atondurikoa; *Bigarrego abarrak* (1991) Klasikoak sailean Ainhoa Beola eta Inma Muñoz bikoteak prestatu; eta azkenik *Abarrak* (1995), Iñaki Urdanibiak apaillatu Egin Biblioteka bilduman.



zuen Basilia

Bustintza Ozerinekin ezkondu zenetik, Montellanoko San Antonio mehatz elkartasunerako hasi zen lanean, kontueramaile. Lan hura, ordea, 1913an utzi zuen, sortu berria zen *Euzkadi* egunkarian lanean hasi zenean. Honetan bi atalen egilea genuen, erdaraz «Temas vascos» zeritzana eta



Taxiek ematen omen dute hiri bat ezagutzeko neurria. • MIKEL SAIZ

Taxi Driver

Estu eta larri nabil orduarekin. Hamaiketan daukat egina hitzordua medikuarekin.

Vicente, Tuterako karrikako geltokian tartarrean ari da bere lankideekin helmuga ezegun batera joateko zain. Nafarroako Ospitalera ziztu bizian eramateko eskatu diot. Erretrobisoretik erne begiratzeko duen bitartean, aurtengo udazkeneko eguraldiaz hasi zait solasean. (¡Cines Golem!). Semaforo gorrian gelditu ondoren beste mintzagai bati heldu dio elkarrizketaren bila. «Goizeko zortzietan hasi eta iluntzerarte» ordutegirik gabeko lana omen da taxistarena. Batez ere, «goiz-goizean eta eguerdi partean» egoten omen da mugimendu apur bat. (¡Renfe!). Aurreko asentuan dagoen *Diario de Navarra* hartu dut esku artean gainbegirada bat emateko asmoz.

Nolanahi ere, gizonak bakarriketarekin jarraitzen du Antso Azkarraren etorbidea zeharkatzen dugun bitartean. (¡Hotel Albret!). «Gauetz, langabezia dagoen seme gazteenak hartzen du bolantea». Hala eta guztiz ere, taxiak etorkizun iluna daukala errepikatzen du etengabe. Vicentek, nire ixiltasunaren eraginez, mesfidati begiratu du oraingoan erretrobisoretik. «Arriskua ere hortxe dago, edonor sar daiteke gure autoan».

Pio XII.ren etorbidera hurbiltzen ari gara. (¡Cafeteria Rumbos!). «Burgosen jaio eta duela 26 urte Iruñera ezkondu nintzen». Garai hartan,

lanbide honetan aritzeko arazorik ez zegoen bere aburuz. «Gasolioak ez zuen egungo prezioa eta COTUpeko villavesekin ez zegoen arazorik». Orain, berriz, autobusak gau eta egun ibiltzen direlako kezku azaltzen da gure protagonista. (¡Universidad Pública!). Orozen biñeta gaurko honetan ere ez dut ulertu. Olariagaren sakontasun komikoa lantzen ari dela ematen du. Taxista ez da ixiltzen. Bere tragediarekin aurrera doa, bakarrik. (¡Hospital de Navarra!). «318 al habla, voy para allá, cambio y corto».

Itxura guztien arabera, norbait zain dago gure helmugan. Ez dirudi lan gutxi dagoenik. (¡Parlamento Foral!). Audi 4a, berriz ere, semaforo aurrean gelditu egin da. «Gainera, hiru urtetik behin autoa aldatzeko beharra daukat, bestela zaharkiturik gelditzen da hainbeste kilometro egin ondoren. Jainkoari esker, Ospitalera iristear gaude. (¡Torre Basoko!). Atari nagusian gelditu ordez, hobe nuke agian, larrialdien sarreraraino jotzea».

Taxiek ematen omen dute hiri bat ezagutzeko neurria. Bide luzea daukagu oraindik Iruñean, prezioak eta hitz jarioa moteltzerako tenorean. «Beno, gazte, azkenean hementxe gaudel». 920 pezetaren truke, mila esker eman dizkit Vicentek, autobus geltokitik honeraino negar batean ekartzeagatik. (¡Juzgado de Guardia!). Gainera, berandu da dagoeneko. Aspirina bat, azkar!!

Ziria

• Motxorrosolo •

Osatzaileak

Jaingo ttikiak gurtzen dituztenen xaxatzailea. Larre motzean goxo-garratzetan jakitun. Bat baino gehiagok jenero literarioen berritzaile jotzen du. Hamaikagarrenez osatzaileekin egin du topo. Ez da hondarreko enkontrua izan.

Javier eta Jose Luis

☉ NUPEKO TUNAKO KIDEAK

«'Clavelitos' jotzeari utzi nahi diogu, baina jendeak ez digu uzten»



Martxan dago Nafarroako Unibertsitate Publikoko tuna. Duela hiru urte sortu zen eta berriki ekin dio ikasturte berriari. Tunako kide Javier Lana eta Jose Luis Lakuntzarekin mintzatu gara talde horren berri izateko.

LAKUNTZAK ETA LANAK ARGI dute jende askorentzat aspaldiko kontua dela tuna, fama txarra dutela. Haien inguruko topikoei erantzuna eman diete, «tunaren benetako izaera» azaltzeko asmoz.

■ Noiz eta nola sortu zen NUPEko tuna?

Duela hainbat urte sortu zen; hasieran, ingeniari tekniko industrialen tuna zen, baina pixkanaka zabalduz joan zen eta fakultate guztietako jendea sartu zen taldean. Horrela sortu zen NUPEko tuna; hiru urte darama martxan. Gaur egun hamabost kide gara, baina beste hogeitabat ere badira gure inguruan eta hainbat ekitalditan parte hartzen dute. Bestela, zaila da denak biltzea.

■ Jendeak, oraindik ere, tunan sartu nahi du?

Bai; egia da zaila dela jendea erakartzea, baina aurten hainbat kide berri sartu dira eta gehiago etorriko direla uste dugu. Asteartero egiten dugu entsegua, 20:00etan,

Erizaintza eskolan, eta gure asmoa da Iruñeko tuna guztientzat entsegu bat antolatzeari, hainbat ekitalditan elkarrekin aritzen garelako.

■ Baina zenbat tuna dago Iruñean?

Lau dira: Opuseko unibertsitatean bi daude —medikuntza eta zuzenbideko fakultateetakoak—, Larraonakoa eta gu geu.

■ Tuna aspaldiko kontua dela uste du jende askok, ez dagoela modan; zer deritzozue?

«Etor dadila nahi duena egun batean gurekin eta ikusiko du ez garela jendeak uste duen bezalakoak; badakigu kontserbadore fama dugula, baina tunaren barruan era askotako jendea dago»

Egia da aspaldi sortutako gauza dela tuna, baina unean uneko egoerara egokitzen da. Betiko kantekin batera, egun irrati guztietan entzun daitezkeen abestiak ere jotzen ditugu. Errepertorioa berritu dugu. Guk oso ongi pasatzen dugu eta hori da garrantzitsuena. Hori, eta musika lantzea. Gurekin egoten den jendearentzat ere dibertigarria dela uste dugu. Musika tresna bat jotzen ikasteko eta abesteko aukera ematen dizu tunak.

■ Errepertorioa berritzen hasi zaretela diozue; noizko Clavelitos behin betiko bazter uztea?

Guk bazter utzi nahiko genuke, baina leku guztietan eskatzen digute. Hori da eskatzen diguten kanta bakarra. Nekatuta gaude, baina jende askok abesti horrekin identifikatzen du tuna.

■ XXI. mende atarian, nesken balkoien pean abesten jarraitzen duzue?

Bai, urtebetetzeak direla-

soslaia

Javier Lana iruindarra da, eta 21 urte ditu. Ingeniaritza Tekniko Industrialeko ikaslea da, NUPen, eta tunan hiru urte darama. Pozik dago eta tunarekin hamaika lekutara bidaiatzeko aukera izan duela azpimarratu du.

Jose Luis Lakuntza ere 21 urteko iruindarra da. Zuzenbidea ikasten ari da bera, eta NUPera ailegatu zenetik dago tunan, duela hiru urtetik.

Tunaren inguruko topiko gehienak okerrak direla nabarmendu dute biek, eta jendearen errespetua eskatu dute. «Leku askotan abesten dugu, ezkontzetan eta abar, eta, askotan, gaizki hartzen gaituzte».

eta deitzen gaituzte. Tradizio handiko kontua da guretzat, baina egia da gero eta gutxiagotan egiten ditugula horrelakoak.

■ Tunoeak asko ligatzen omen duzue; ligatu al daiteke zuek eramaten dituzuen bonbatxo horiekin?

Ez da egia, ez dugu batere ligatzen. Egia da jendearekin hitz egiten hasteko erraztasun handiagoa dugula, musika eta janzkera dela eta; baina ez dugu gehiago ligatzen.

Janzkerari dagokionez, izugarria da, neguan hotzak akabatzen egoten garelako, eta, udan, berriz, izerditan blai. Hala ere, ez dugu aldatzeko asmorik.

■ Eta egia al da ikasle txarrek zaretela, hamar urte behar dituzuela lau urteko karrera bukatzeko?

Ez, denetarik dago, leku guztietan bezala. Egia da tunak ongi pasatzeko aukera ugari eskaintzen dizula, baina ikasi behar denean ikasi egiten dugu.

■ Zuen inguruan dauden topiko guztiak okerrak badira, nolakoak dira, benetan, NUPEko tunako kideak?

Tuna ongi pasatzeko eta abesteko aitzakia besterik ez da. Fama txarra dugu; jendeak dio aprobetxategi hutsak garela, baina ez da egia; agian beste garai batekoak halakoak ziren, baina egun ezberdina da. Gizartea asko aldatu da eta tunoak ere. Irudi hori aldatu nahi dugu, ez delako benetako. Etor dadila nahi duena egun batean gurekin eta ikusiko du ez garela jendeak uste bezalakoak. Badakigu kontserbadore fama dugula, baina tunaren barruan era askotako jendea dago.

→ Edurne Elizondo



Nafar Kronika

Daniel Urrutia

Dani ala Dani

Bere gurasoen erabakia izan zen eta Danik ontzat jo zuen. Garai haietan ezkertiarak eta abertzaleak ziren eta haurra ikastola publikora eraman zuten. Eta Danik, egun ezkertiarra eta abertzalea denez, ontzat jo zuen.

Nafarroan ikastolen borroka latza izan bada, are latzagoa izan da ikastola publikoarena Iruñean. Dani ez zen mutiko bihurria izan, baina bere hezkuntza publikoa euskaraz jasotzeko, bortz zentrotan ibili zen: Donibane (etxabea), Antsoain (barrakoiak), Meca (zaharren eta eroen etxea), Fitero (hiltegi ohia) eta, azkenik, Amaiur.

Dani euskalduna da; eta euskalduna denez euskaltzalea da; eta euskaltzalea denez, abertzalea. Horregatik estimatzen du ikastola guzien lana.

Dani, erran dugu, ezkertiarra da; eta ezkertiarra denez, ikastola pribatuei beti mesfidantzaz begiratu die, Ulertzen du herri ekimenetik sortuak direla, baina ulertzen du Udal Ikastola ere herri ekimen beretik sortua dela, eta aukeran, noski, publikoa du nahiago.

Bere alderdi euskaltzaleari jarraiki, gustura joan ohi da Dani Nafarroa Oinez-etara. Ezkerzaletazunak ez zion enbarazurik egin Bera, Altsasu, Tafalla, Tuteran edota Zangozara joateko. Iaz, ordea, duda-mudatan egon zen, Iruñean gelditu ala ez; azkenean Oinez-era bertaratu zen, baita euro bakan batzuk gastatu ere. Aurtengo duda-mudak anitzez handiagoak izan dira. Beti pentsatu izan du San Fermin, ikastola guzien artean, elitistena dela. Badaki, edo hala uste du bederen, haurrak ikastolara eramatea erabakitzen duten upeneta-reek San Ferminera eramaten dituztela gehienetan. Horregatik ez zuen Zizurrea hurbildu nahi.

Dani, ezkertiarra denez, atea da; baina larunbatean eskerrak eman zizkion Jainkoari horrelako eurijasa bidaltzeagatik. Eta igandean, jaiki zelarik, Jainkoa madarikatu zuen San Fermineko horrelako egun ederra oparitzeagatik.

Eta Dani Zizurren izan zen igandean.

gure aukerak

MUSIKA

- **Etzarri Aranatz:** Gaur, 20:00etan, Jauna Muzica abesbatzak emanaldia eskainiko du kultur etxean.
- **Zizur Nagusia:** Gaur, Ratos de Porrao brasildarrak Like Peter at Home, Mob Hardcore eta Asto Pituak taldeekin batera ariko dira frontoian, 22:00etatik aurrera.
- **Iruñea:** Gaur, gaueko hamabietatik aurrera, El Columpio Asesino taldeak kontzertua eskainiko du Cotton Club tabernan.
- **Burlata:** Asteartean, Black Rose tabernan Arcanda taldeak joko du, 20:30ean.

HITZALDIK

- **Lizarrak:** Gaur, 20:00etan, *Maeztu, Buñuel y el cine popular de los comienzos del sonoro* hitzaldia emanen du Luis Fernandez Colorado jaunak Gustavo Maeztu museoan.
- **Etzarri Aranatz:** Gaur, ostiralarekin, Castillo Suarezek *Mugarri estaliak* bere liburua aurkeztuko du Leku Ona tabernan, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Burlata:** Ascension Pomesen akuarelak gaur eta bihar, 19:00etatik 21:00etara, eta igandean, 12:00etatik 14:00etara, ikus daitezke Joaquín Azkarate karrikako kultur aretoan.
- **Mutiloagoiti:** Hila bukatu arte, Guatemala hiriko zaborte-giaren inguruko argazki erakusketa jarria du Joseba Zaballak kultur etxean: *El bulevar del Zope* izenekoa. Lanegunetan 17:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara ikus daitezke.
- **Iruñea:** Maria Jesus Urgoitiren pintura eta eskultura lanak hilaren 31 arte daude ikusgai

Ormolu galerian (Paulino Caballero, 42).

- **Lizarrak:** Pedro Salaberri margolariaren lanen erakusketa zabaldua ikus daiteke Gustavo Maeztu museoan azaroaren 1a arte, astegunetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta jaiegunetan 11:00etatik 13:30era.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Urriaren 31n bukatuko da Egile Berrientzako XV. Literatur lehiaketan lanak aur-

kezteko epea. Olerki, narrazio labur, bertsopaper zein komiki sailetan hiru sari banatuko dira, 200.000, 120.000 eta 60.000 pezetakoak.

- **Atarrabia:** Besta Jira V. Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea azaroaren 1n bukatuko da. Parte-hartzaileek, 16 urte baino gehiago izateaz batera, Atarrabian jaiok izan behar dute, edo bertan bizi behar dute. Argazkiak txuri-beltzean edo koloretan izan daitezke. Lanen gaia librea da. Informazio gehiago, Atarrabiko Udalean.

BESTELAKOAK

- **Espartza:** Bihar, Erronkariko euskaldun eta euskaltzaleen afaria izanen da kanpinean, 22:00etan. Afalostean, Txan magoa ariko da.
- **Iruñea:** Karrikirik ikasle- en pisuak euskaldunetaz betetzeko zerbitzua abiatu du. Euskalduna bazara eta pisu bila bazabiltza, edota zure pisuan euskaldunendako lekua baduzu, zoaz Karrikirira (Xabier karrika, 2 bis) edo hots egiezu (948-222589).

• JOXE LACALLE



Etorkizuna

Euskarari bultzada ematearren, 100.000 euskaltzaletik goiti elkartu zen igandean Zizurren. Jendea zenbatzea zaila da, eta auskalo zein sistema erabili zuten hori egiteko, baina kontua da jende mordoa bildu zela. Gehienak gustura joan ziren eta beste batzuk (edo beste bat), karguak behartuta. Eta haur gehienak gurasoek eraman zituztelako joan ziren. Izan ere, ttikia zarelarik bost axola zaizu nora eramaten zaituzten; ongi pasatzea da funtsezkoena. Errebindikazio gordinen ere ez dute alderdi hori bazter utzi behar. Joko bidezko errebindikazioa aiseago sartzen da. Irudiko bi neskatoak euskaldun petoak izanen dira. Edo akaso ez. Apika, eraikuntzako langileak izanen dira. Edo akaso ez. Nork daki; Nafarroa Oinez-era bildu ziren guziak zenbatzea bezala etorkizuna iragartzen saiatzea alferrikakoa baita.